

EGUR HILA EDO DESKONPOSIZIOAN KUDEATZEKO JARRAIBIDEAK

Sarrera

Egur hila eta deskonposizioan basoen, larre zuhaitzen eta parkeen osagai garrantzitsua da. Are hiri giroetan ere erabilgarria izaten da deskonposatzen ari den ahalik eta egur gehien gordetzea; gutxi dakigu habitat honetan bizi diren espezie saproxilikoek ugartasunari eta haien hedapenari buruz, baina askorentzat hiri giroa ez da berez kaltegarria. Organismo saproxiliko asko deskonposatzen ari den zuraz baliatzen dira, ondoak, ornogabeak eta landare ez baskulareak barne. Zuraren deskonposizioa, gainera, prozesu natural bat da, mantenugaiak askatzen dituen, landare nagusien eskura jarriz, zuhaitzen eskura esaterako.

Egur hilaren mota guztiak baliotsuak dira.

Lurrean dagoen egur hila / edo deskonposizioan

Printzipio orokor batzuk:

- **Tamaina eta itxura.**

Handigoa eta hobe, bai diametroan eta baita luzeran ere. Zatia handiagoa eta baliotsuagoa. Diametro handiko adarrak eta enborrak ahalik eta gutxien ebaki behar dira, eta hobe ebakitzen ez badira.

- **Espezieak.**

Espezie autoktonoen zura, batez ere tokian bertan daudenena, hoberena da.

- **Deskonposatzen ari den zura.**

Deskonposizio edozein zantzu erakusten duen duen edozein zur hila bertan utzi behar da, eta ukitu gabe ahal bada.

- **Sustrai sistemak eta motzondoak.**

Eroritako zuhaitzen sustrai-sistemak bertan utzi behar dira, ez badira seguritateko arrisku bat ez badira. Zuhaitzen motzondoak lurrean utziko dira, kudeaketa beste jarduketa batzuetarako oztopo ez badira (ilarradien kontserbaziorako egin beharrekoak esaterako). Motzondoak ez dira tratatu behar (espezie inbaditzaileetakoak ez badira eta bertako legediak hori baimenduta). Motzondoak irregularrak badira edo desberdinak horrela utziko dira. Ez berdindu bota edo erori ondoren.

- **Kokapena.**

Hoberena da egur hil / deskonposatzen ari dena bertan uztan, erori den toki berean, baina hori ez da beti posible izaten:

- Organismo batzuek nahiago dute zura baldintza irekietan.
- Organismo batzuek nahiago dute zura itzalpean edo erdi itzalpean.
- Uretan dagoen egur hila, bertan utzi beharko litzateke.
- Hoberena da egotea egur hila egoera desberdinetan.

Tokiz aldatu behar bada edo suntsitu, honako jarraibideei kasu eman:

Egur hila edo deskonposizioan suntsitzea / tokiz aldatzea.

- **Egur hila / deskonposizioan suntsitzea.**

Egurra kendu behar bada, ezpaldu edo erre, orduan ez da tokian bertan utzi behar usteltzeko.

Ebaki berriko edozein zur apirila baino lehen kendu behar da, bestela, bertan utziko da betirako.

Edozein dela arrazoiā, egurra berta eta pilatuta utzi behar bada, polietileno geruza batez estaliko da. Hoberena litzateke gauza bera zerrategian ere eginen balute.

- **Egur hila / deskonposizioan tokiz aldatzea.**

Hoberena da tokiz aldatzea bandintza bertsuko lekuren batera eramatea.

- Tokiz aldatu ahalik eta distantziarik txikienera.
- Gorde egurra batere ukitu gabe, ahal den neurrian.
- Ebaki edo erori eta berehala tokiz aldatzea.
- Lurrean uztea, ez beste egurren gainean.
- Nektar iturrien ondora tokiz aldatzea (onuragarria egur hileko intsektu askorentzat).
- Deskonposatuago dagoen egur hilaren ondora tokiz aldatzea (habitataren jarraitutasuna sendotzeko).